



Ljubljana, 2025eko irailaren 28a

PRENTSA OHARRA

DoSEL Nazioarteko Erakusleihoa programa eta Europako Hizkuntza Txikiagoetan sortutako Antzerkiari buruzko jardunaldia izango dira Ljubljanan

Kranjeko Prešeren Antzokiak, Cankarjev dom eta DoSEL proiektuko bazkideekin lankidetzan, poz handiz aurkezten du DoSELen 2025eko Nazioarteko Erakusleih Programaren baitan Eslovenian egingo den ekitaldia.

Europako Hizkuntza Txikiagoen Drama (*Drama of Smaller European Languages – DoSEL*) proiektua Europar Batasunaren Creative Europe programaren babesaren duen ekimen bat da, zeinak Europako hizkuntza txikiagoetan sortutako antzezlanen ikusgaitasuna eta bizitasuna areagotzeko helburua baitu.

Antzezlan horien itzulpena, eszenaratzea eta hedapena sustatuta, DoSEL proiektuak mezu bat helarazten digu: Europako antzerkiaren aberastasuna Europako testuinguru linguistiko eta kulturaletako hizkuntzen, ikuspegiaren eta istorioen aniztasunean datza. Horrekin batera, proiektuak agerian jarri nahi du, hizkuntzarekin lotuta dituzten oztupoak direla eta, nazioarteko publiko zabalago batengana iristeko orduan Europako tradizio dramatikoek eta haien jatorrizko ingurune kultural eta artistikoek duten zaugarritasuna.

Ljubljana programaren osagarriarekin, biribildu egiten dira DoSEL Nazioarteko Erakusleihoren baitan joan den udaberrian Kranjen ospatu zen Esloveniako 55. Antzerki Astearen harira antolatutako jarduerak artistikoak.

2025eko urriaren 2an izango dira Ljubljana ekitaldiak, **Cankarjev dom Kultur eta Kongresu Zentroan**, eta **nazioarteko jardunaldi** bat ere egingo da. Ondoren, Bilboko Arriaga Antzokiak ekoiztutako **MOTO – Membra Jesu Nostrri** antzezlanaren gaueko emanaldi bat egingo da Cankarjev domeko Linhart aretoan, Esloveniara Etxepare Institutuaren laguntzaz iritsiko dena.

Jardunaldiko lehen mahai-inguruan Europako hizkuntza txikiagoek Europako antzerki garaikidearen sektorean duten egoerari helduko diote. Moderatzailea **Jakob Ribič** ikertzaile eta antzerki kritikari esloveniarrak izango da. Hizlarien artean daude, besteak beste, **Victor Muñoz**, Bartzelonako Beckett Aretoko Egileen Harremanetarako burua, **Zala Dobovšek**, doktorea, dramaturgoa eta Esloveniako Antzerki Asteko hautatzailea, **Laura Gardes**, ETC Sarearen eta Proiektuen zuzendaria, eta **Darko Lukić**, doktorea, Berlinen bizi den antzerkiaren arloko akademiko eta teorialari kulturala.



Bigarren mahai-ingurua **Barbara Skubic** esloveniar antzerkigile eta itzultzaileak moderatuko du, eta itzulpengintzak eta itzultzaileek Europako hizkuntza txikiagoetan egindako antzerkiaren sustapenean duten zeregina aztertuko du. Hizlarien artean egongo dira, besteak beste, **Julija Potrč Šavli**, Esloveniako antzerki-itzultzailea; **Dino Pešut**, Zagreben dagoen Kroaziako Antzoki Nazionaleko egilea eta dramaturgoa; **Ivan Dodovski**, doktorea, Mazedoniako antzerki garaikidearen arloko akademikoa eta idazlea eta Eurodram sareko presidentea, eta **Gašper Troha**, doktorea, ikertzailea eta Esloveniako Antzerki Institutuko zuzendaria.

Urriaren 2ko arratsaldean, **Bilboko Arriaga Antzokiak** ekoiztiko *MOTO – Membra Jesu Nostr* antzezlan gonbidatuaren emanaldi handia izango dugu Cankarjev dom antzokiko Linhart aretoan. Antzezpena **Dietrich Buxtehude** (1637-1707) konpositorearen musikan oinarritzen da: *Membra Jesu Nostrin*, hain zuzen; bakarlariek, abesbatzak eta Conductus Ensemble instrumentu taldeak interpretatuko dute, Andoni Sierra zuzendari musikalaren gidaritzapean. Antzezlan **Lucía Astigarragak** zuzendu du, eta **Eneko Sagardoy** da testuaren egilea eta aktore nagusia.

Urriaren 3an, antzezlanaren zuzendari Lucía Astigarragak masterclass bat emango du Ljubljana Unibertsitateko Antzerki, Irrati, Zinema eta Telebista Akademian, antzerkia eta dramaturgia ikasketak egiten ari diren ikasle esloveniar eta kroaziarrentzat.

Programa osagarriaren barruan, DoSEL proiektuko bazkide guztiak eta bertaratutako bazkide elkartuak hurrengo jarduerak prestatzeko bilduko dira. DoSEL Nazioarteko Erakusleahoaren baitan eskainiko den Europako hizkuntza txikiagoetan idatzitako antzezlanen hurrengo emanaldia Valletan izango da, Malta, 2026ko apirilean, Maltako Arte Eszenikoen Agentzia Nazionalak antolatuta. Datorren urtean, DoSEL elkarteak Europako hizkuntza txikiagoetan idatzitako antzezlan garaikideen artean hautaketa bat egin eta lehen aldiz itzultitako 24 lan sustatuko ditu. Liburuen argitalpenak 2026ko udazkenean egongo dira eskuragarri.

Horrela, DoSEL proiektuak hizkuntza txikiagoen irismena handitzen du, truke artistikoa elikatzen du eta Europako bizitza kulturalaren ehuna indartzen du.

DoSEL proiektuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu dosel.eu webgunea.

Emanaldi gonbidatua eta jardunaldia honako hauen lankidetzarekin antolatu dira: